

# ELGOIBAR

## Jasangarritasunaren Diagnosiaren Laburpena



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ELGOIBARKO UDALA  
AYTO DE ELGOIBAR

LIURRALDE ANTOLAMENDU  
E LA INSTRUMENTO BASC  
DEPARTAMENTO DE ORDENACION  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE





## ELGOIBARKO TOKIKO AGENDA 21

Azken aldian, ELGOIBARKO UDALAK ingurumena eta baliabide naturalak babesteko eta garapen iraunkorra lortzeko apustua egin du, eta hori lortzeko konpromiso aktiboa hartu du.

Garapen iraunkorra lortzeko helburuarekin, AGENDA 21 izeneko lan-metodologia hartu du oinarritzat. Horretarako, herriko egoera aztertzen hasi gara, eta diagnosiaren zirriborro bat egin dugu. Diagnosiaren prozesu honen lehen pausua besterik ez da.

Apustu hau aurrera eramateko, HERRITAR GUZTIEN iritzia eta parte hartzea ezinbestekoa da. Diagnosi honi buruzko zure ekarpenak jaso nahi ditugu.



## I. Sistema naturalak eta ingurune fisikoa

Bailararen hego-mendebaldean kokatuta dago. Elgoibarko udalerriak 39.2 kilometro koadroko azalera du, hain zuzen ere, bailara osoaren azalaren % 21.74.

Bertako altitudea itsasmaila gaineko 895 m (Irukurutzeta) eta 30-40 m (itsas maila) bitartean dago. Deba ibaiak herria zeharkatzen du, eta hori da udalerria egituratzen duen elementu nagusia.

Paisaiari eta naturari dagokionean, "Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru" izeneko ingurunea garrantzia berezikoa da, eta horrela dago sailkatuta udal antolamenduan. Era berean, EAEk ere garrantzia bereziko gune gisa sailkatzen du ingurune hori. Horretaz gain, inguru horrek garrantzia handia du aurre-historiako arkeologiari dagokionean, bertan hainbat trikuharri eta tumulu daudelako.

Halaber, paisaiari dagokionean, badira interes handiko guneak: Karakate-Irukurutzeta, Kalamua-Morkaiko, Lapion, Urkaregi gaina, Artxinga gaina, Etun, Barrenkorta, Lizundia, Gorrinaga gaina, Urnobotza, Untzon, Munaundi, Zargoate gaina, Urkiri, Ziardamendi-Bigoin eta Moru.

Deba ibaiaren arroan oso arrain gutxi dago. Horretaz gain, ibai-gune askotan ez dago arrainik, uraren kutsadura handia delako, eta ura argindarra sortzeko hartu izan delako.



## II. Gizarte eta ekonomia alorra

### Demografia eta biztanleria

Udalerrian 10.620 biztanle daude (2004). Biztanle horiek bi hirigunetan (Elgoibarko eta Altxolako hiriguneak) eta hainbat baserri-azotan (Sallobente-Ermuaran, Idotorbe (San Pedro), Urruzuno, Azkue (San Roke), Aiastia (San Migel) eta Albitxuri) banatzen dira.

Bailarako beste zenbait udalerritan bezala, hazkunde begetatiboa negatiboa da; migrazio-saldoa ere negatiboa da, nahiz eta gorabehera txikikoa izan. Ondorio gisa, esan dezakegu, azken hamarkadan, demografiak beherantz egin duela, 2003 urtean izan ezik.

Biztanleriaren piramideak adierazten duenez, biztanleria zahartzen ari da, Gipuzkoan oro har gertatzen den bezala.

Biztanleria adin taldeka (%). Iturria: Eustat				
Elgoibar	1986	1991	1996	2001
< 19	28	23,6	19,2	15,53
20-64	62,6	63,7	63,8	63,13
>65	9,4	12,7	17	21,34

### Lanbidea eta lana

Udalerrriak biztanle bakoitzeko duen Barne Produktu Gordina (BPG) EAEko batez bestekoa baino handiagoa da. Familia-errenta EAEkoa baino zertxobait handiagoa da, baina Gipuzkoakoa baino txikiagoa (2003 urtea).

Okupazio-indizea handia da. Langabezia, berriz, nahiko txikia. Langabeturik gehienak emakumeak dira.

Industria (%50,88) eta Zerbitzuen (%41,92) sektorea dira langile gehien hartzen dutenak. Horien atzetik, baina alde handiarekin, eraikuntza eta nekazaritza datoz. EAEn industria sektoreak bereganatzen du lanpostuen %36,3, eta zerbitzuen sektoreak, aldiz, lanpostuen %53,2.

Elgoibarren 132 enpresa daude, eta bertan, 3.439 langile daude (bailarako industria-langileen %27,19). Bailarako industria-enpleguaren portzentajerik handiena (2003 urtea).



## Etxebizitza

Etxebizitzaren %86 okupatuta dago. Okupazio maila EAEkoa eta bailarakoa baino hiru puntu handiagoa da. Azalerarekin alderatuta, etxebizitzaren dentsitatea oso handia da.

Elgoibarko bigarren bizitexteak etxebizitza guztien %0,5 baino ez dira. Kopuru hori dezente txikia da bailarakoarekin (%0,8) eta EAEkoarekin (%0,91) konparatzen baldin badugu.

Babes ofizialeko etxebizitzetara dagokienean, azken 5 urteotan, 144 etxebizitza berri eraiki dira. Horietatik 40 alokairuan eman dituzte. Aurreikusita dago 127 etxebizitza berri egitea. Horietatik 99 esleituta daude, dagoeneko.

1996 urtean, Elgoibarko etxebizitzaren konfort-indizea EAEko batez bestekoa baino 5.5 puntu txikiagoa zen. Berokuntza eta gas instalazioak jarrita zituzten etxebizitzaren portzentajea ere txikiagoa zen.

## Osasuna

Udalerriko osasun-ekipamendua egokia da. Gaur egun, ambulatorioa, mutualitate erako asistentzia-zentroa, eta Gurutze Gorriaren larrialdi-zerbitzua daude bertan.

Osasun ekipamendu pribatuei dagokienean, Elgoibarren, lau botika, lau hortz-klinika eta albaitaritzazentro bat daude.



## Hezkuntza

Elgoibarko ikasketen indizea EAEkoaren antzekoa da.

10 urtetik gorako biztanleria, udalerrira, ikasketen maila kontuan hartuta.

2001	E.A.E.	ELGOIBAR
Guztira	1.922.982	9.714
Alfabetatugabeak	13.027	120
Ikasketarik gabekak	80.802	407
Oinarrizko ikasketak	810.790	4.415
Lanbide Heziket.	267.955	1.675
Bigarren mailakoak	354.529	1.566
Erdi-go mailakoak	142.858	620
Goi mailakoak	253.021	911

Iturria: EUSTAT

ELGOIBAR	1986	1991	1996	2001
Guztira	10.854	10.702	10.208	9.714
Alfabetatugabeak	172	162	88	120
Ikasketarik gabekak	414	1.223	650	407
Oinarrizko ikasketak	6.890	5.488	5.145	4.415
Lanbide Heziket.	1.569	1.726	1.995	1.675
Bigarren mailakoak	1.041	1.156	1.203	1.566
Erdi-go mailakoak	331	411	488	620
Goi mailakoak	437	536	639	911

Iturria: EUSTAT

Analfabetismoak behera eta oinarrizko ikasketen portzentajeak gora egiten duen heinean, bigarren mailako, lanbide heziketako eta goi mailako ikasketen portzentajeak behera egin du azken hamarkada honetan.

## Euskara

2000 urtean Udalak kaleratu zituen datuen arabera, biztanleriaren %52,8 euskalduna zen, %3,7 erdi euskalduna. %33,7k, berriz, erdalduna zela zioen. Konparaketa eginez gero, Gipuzkoako euskaldunen indizea %51,45koa da, eta EAEkoa, ordea, %32,3koa.

Udalerrian indarrean dago Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Horren helburu nagusia da, bai Udalean, bai Udalerrian, euskararen erabilera normalizatzea.



### III. Lurralde Antolamendua eta Hirigintzako Plangintza

Aipatzekoa da, Elgoibarren, urbaniza daitekeen lurzoru-hiritarraren %43,63 industriarako erabiltzen dela, eta lurzoru horren %27,18, aldiz, etxebizitzak egiteko.

Gaur egun, 778.015 metro koadroko lur-zoru industrialia dago, 8 industrialdetan banatuta. Horien artean Albitxuriko industrialdea dago. 160.915 metroko azalera du, eta oraindik ere, eraikitzen ari dira.

Aurreikusita dago Arau Subsidiarioak berrikustea.

Udalerriko berdeguneen eta pasealekuen azalera handia da (21 metro koadro biztanleko). Horrek erraz gaintzen du legeak berdeguneentzat ezartzen duen indizea: 5 metro koadro biztanleko.

Herriaren ondare historikoa eta arkitektonikoa garrantzitsuak dira. Aipagarriak dira Altzolatarren dorretxea eta Foruen plazako monumentu-taldea.

### IV. Funtsezko Ingurumen Sektoreak

#### Ura

- Etxean erabiltzeko uraren kontsumo-indizea bailarako handienetakoa da: 102,62 litro eguneko eta biztanleko. Dotazioa, berriz, honakoa izan zen: 245,02 litro eguneko eta biztanleko. Horrek adierazten duenaren arabera, galera handiak daude, edo bestela, baimenik gabeko konexio ugari egiten dira sarean.

- Elgoibarko saneamendu-sarea osatu gabe dago tarteune askotan (euri eta hondakin urak nahastu egiten dira).

- Gipuzkoako ibaien laginketa-sareak azaltzen duen legez, Deba ibaia da Gipuzkoako ibairik kutsatuena. 2003 urtean egindako analisi fisiko-kimikoek agerian utzi dute, Deba ibaia oso kutsatuta dagoela Elgoibartik igarotzen denean, eta era berean, amonio eta fosfato mailak oso handiak direla. Ibaiko uraren kalitate biologikoa eskasa da, eta indize biotikoaren arabera, urak kutsatuta edo oso kutsatuta daude. Oro har, metaleen maila txikia da.

- Aurki, abian jarriko da Arriaga Industrialdean kokatuta dagoen araztegi berria. Bertan, hainbat herritako hondakin urak –Elgoibarkoak ere bai- araztuko dira. Indize onargarrietara egokitzen ez diren industria-urak ere bertan tratatuko dituzte.

- Deba ibaiari lotuta, hiru zentral hidroelektriko daude martxan. Horietako bakoitzak 1100 megawatt orduko sortzen ditu urtean.

Etxean erabiltzeko uraren kontsumoa (bizt/egun)			
Urtea	Biztanleria	Etxeetako ura: m <sup>3</sup>	L./bizt./egun
2002	10.614	445.441	114,9
2003	10.637	459.299	118,3
2004	10.524	451.297	117,5

Iturria: Udala



## Hondakinak

2004 urtean, Debabarrenako biztanle bakoitzak 0,90 kilo hiri-hondakin sortu zituen egunean. Kopuru hori Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da (0,92 kilo biztanleko eta eguneko). Badirudi, hondakinak sortzeko joera handitu egingo dela:

- Papera eta kartoia: 26,50 kg/urt/bizt. - Beira: 24,36 kg/urt/bizt. - Ontziak: 4,89 kg/urt/bizt.

- Bailaran ez dago hiri-hondakinak botatzeko zabortegirik. Hondakin organikoak eta banatzen ez direnak Lapatxera (Azpeitia) eramaten dituzte.
- Elgoibarren, Urruzunon, alegia, badago hondakin geldoak (lurra, eraikuntzako materiala...) botatzeko zabortegia.
- Gomendagarritzat jotzen dena baino edukinontzi kopuru handiagoa dago biztanleko.
- **Está previsto el soterramiento de los contenedores en Aita Agirre Plaza, Pedro Miguel Urruzuno kalea y Arrillaga kalea.**
- Badago etxean erabilitako oiloa eta etxeko hondakin arriskutsuak jasotzeko zerbitzua (lixibak, disolbagarriak, grabaketa zintzak, kartutxoak...). Zerbitzu hori 2004 urteko uztailan jarri zen abian. Garai horretan 5.024 litro olio jaso ziren. Horretaz gain, etxeko hondakin arriskutsuak ere jaso ziren.
- Ehunak gaika jasotzeko zerbitzua ere berriki jarri da abian.
- Ez dakigu ondo nola gestionatu behar diren industria-hondakinak. Enpresa bakoitzak gestionatzen ditu bere industria-hondakinak. Hondakin arriskutsuak sortzen dituztela aitortzen duten enpresak herriko enpresen %32,71 dira.
- Gero eta gehiago birziklatzen dira hiri-hondakinak. Herritarrek harrera ona egin diote gaikako bilketari.

## Energia

- Egoitza-sektorean, 2001 urtean, 1119 kwh kontsumitu ziren biztanleko eta urteko.
- Azpimarratzekoa da, industria energia kontsumitzaile handia dela.
- Hiru zentral hidroelektriko daude Elgoibarren, Deba ibaiaren arroan. Barrena-Berri, Laupago eta Aitzetarte. Beraz, Deba ibaiko uren energia-ustiaketa handia da Elgoibarren.
- Elgoibarko Institutuan, bi instalaziotan, eguzki plaka fotovoltaikoak daude jarrita, energia berriztagarria sortu ahal izateko.
- Gaur egungo lan-merkatuak, aisialdiren ondorioz ugaritu diren joan-etorriek, eta salgaien ugaritzeak garraiorako energia gero eta gehiago kontsumitzera bultzatzen dute.

## Atmosfera

- Orain dela gutxi, Ikastolaren parean, kabina bat jarri dute, inmisioak neurtu ahal izateko. Bertan, Nitrogeno Dioxidoa, Karbono Monoxidoa eta Ozonoa neurtzen dira.
- EAEn hainbeste hobetu da airearen kalitatea, non ia inoiz ere ez diren erreferentzia-baloreak gainditzen.
- Atmosfera kutsatzeko beste modu batzuk ere kontuan izan behar dira: argiaren kutsadura, kutsadura elektromagnetikoa eta kutsadura erradioaktiboa.



## Lur-zorua

- IHOBEk ustez kutsagarriak izan litezkeen lur-zoruei buruz egin zuen inbentarioaren arabera, 1998 urtean, 124 lursail zeuden inbentario horretan jasota. Guztira, 37,84 hektarea ziren kutsatuta egon zitezkeenak. Horrek ez du esan nahi lur horiek kutsatuta daudenik.
- Udalerrian kontrolatu gabeko zabortegiak daude.

## Zarata

- Ez dago zarata-maparik, Elgoibarko kalitate akustikoa zer nolakoa den jakiten lagunduko digunik.
- Udalerrian antzemandako zarata, batez ere, aisialdirako establezimenduek, hau da, tabernek larunbatetan sortzen dutena da. Azkenaldian, herritarrek kexa ugari aurkeztu izan dituzte.
- Udalak ordenantza bat onartu berri du, ostalaritzako establezimenduen zarata maila kontrolatu ahal izateko.



## V. Mugikortasuna eta Garraioa

- Bailaratik gure herrira etortzeko N-634 eta GI-2634 errepideak eta A-8 autobidea erabiltzen dira batez ere. Trenez etortzeko, berriz, kostako Eusko Tren konpainia erabil daiteke.

### Mugikortasuna

- Egiatzatu ahal izan denez, herri barruko nahiz herri arteko joan-etorriak egiteko gehiegi erabiltzen dira motordun ibilgailuak. Gainera, gehienetan, joan-etorri horietan jendea bakarrik ibiltzen da. Ibilgailuetan egiten diren joan-etorri gehienak, joan-etorrien %61 gutxi gorabehera, ezinbestekoak (laneko mugikortasuna) dira.
- Egunero, 8.602 joan-etorri egiten dira ibilgailuetan. Horietatik 2.515, joan-etorri guztien %29,23, hain zuzen ere, herritarrek egindakoak dira.

### Aparkalekuak

- Aparkalekuen eta autoen arteko balantzeak, erdigunean, aparkalekuen defizita dagoela erakusten digu. Dena dela, Elgoibarko aparkalekuei buruzko balantze orokorrak adierazten duen arabera, 118 aparkalekuren soberakina dago.

### Bizikletentzako erriak

- Ez dago bizikletaz ibiltzeko propio egindako biderik.



### **Garraio publikoa**

- Eibarrera eta Donostiara joateko tren zerbitzua garrantzitsua da. Hala eta guztiz ere, zerbitzu hori hobetu daiteke, maiztasunari dagokionean. Dena dela Elgoibar, Bilborekin, Debagoienarekin eta Azkoitiarekin lotuko dituen errepide bidezko garraio publikoa eskasa da.

### **Ibilgailuen joan-etorria**

- Herrira sartzeko eta herritik irteteko puntako orduetan, Goiko-Errotako eta Madalako zubiak gun e istilutsuak izaten dira.
- Aurreikusita dago Olasoko industrialderako sarbidea erraztuko duen biribilgune bat egitea; horri esker zirkulazioa arinagoa izango da puntako orduetan.

### **Irisgarritasuna**

- Eginda dago irisgarritasun plana. Plan horren helburua da traba arkitektonikoak desagerraraztea. Hona hemen jarduera horren adibide bat: herriko hainbat tokitan jarri dituzten eskailera mekanikoak.

## **VI. Sentsibilizazioa eta herritarren partaidetza**

Bailarako udalek, “Bailarako Agenda 21” izeneko proiektuaren motore den Debegesarekin batera, hainbat kanpaina jarri dituzte abian, “Agenda 21” delakoarekin zerikusia duten ingurumen arloetan herritarren sentiberatasuna bultzatzeko.

Bailarako foroa ez ezik, herri mailako foro bat ere sortu da Elgoibarren. Bertan, hala nahi duten pertsonak, enpresek eta elkarteek parte hartzen dute.

Elgoibar Ikastolak, Pilar Ikastetxeak, Elgoibarko Institutuak eta Herri Eskolak Eusko Jaurlaritzak sustatutako “Eskolako Agenda 21” delako proiektuan parte hartzen dute.